

The logo for HETEL, featuring the word "HETEL" in a bold, dark blue sans-serif font, followed by a stylized graphic of two overlapping arrows pointing right, one in green and one in pink.

HETEL

A high-angle, top-down photograph of a group of people walking away from the camera in a brightly lit hallway with a light-colored tiled floor. The group includes men and women of various ages, many wearing backpacks, suggesting a school or university environment. The image is partially overlaid with a large blue rectangle on the left side and a white text box in the center.

LANBIDE HEZIKETA ETA ENPRESAK KONEKTATZEA.

LAN-MERKATU
INKLUSIBOAGOA
LORTZEKO GAKOAK

www.hetel.eus

SARRERA, TESTUINGURUA ETA PROIEKTUAREN HELBURUAK

ARAZOA

Gizartean, lana aurkitzeko zailtasun handiagoak dituen populazio-talde bat dago; ikasketa- eta kualifikazio-maila txikiko gazteak, alegia. Lan-esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez dute, eta laneratzea eta gizarteratzea eragozten dituen aldagai ugari dituzte.

SUSTATZAILEAK

HETEL Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxeen elkarte da, eta bere kide guztiak gizarte-ekimeneko erakundeak dira (irabazi-asmorik gabekoak).

2025-2026 ikasturtean, Oinarrizko Mailako LH arautuaren eskaintza (D graduak) HETEL elkarteko 12 ikastetxetan dago eskuragarri (ikusi 1. taula). Irakaskuntza-maila hori, sartzeko baldintzak direla eta, DBHko graduatu-titulua ez duten eta 15 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago.

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailak babestu du proiektu hau, ekintzailetzako eta enplegu egonkor eta kalitateko proiektu berritzaileen deialdiaren esparruan.

Ángeles Custodios (Bilbo)

Margotu (Bilbo)

María Inmaculada (Bilbo)

Maristak Durango (Durango)

Maristak Zalla (Zalla)

Otxarkoaga (Bilbo)

Peñascal (Bilbo eta Markina-Xemein)

Salesianos Deusto (Bilbo)

San Viator (Sopuerta)

Somorrostro (Muskiz)

Zulaibar (Zeanuri)

Arrantza Eskola (Ondarroa) *

1. taula. D graduak (Oinarrizko Mailako Heziketa Zikloak) eskaintzen dituzten HETEL Bizkaia elkarteko erakundeak. * Lehen mailako ikasleak soilik, ezarri berri den zikloa baita

ERRONKA

Proposatutako erronka kolektibo honen enplegarritasuna optimizatzen lagunduko duten jardunbide egokiak eta hobekuntza-ideiak identifikatzea izan da (kasu honetan, lagina HETEL elkarteari atxikitako Bizkaiko LHko ikastetxeetako Oinarrizko Graduetan matrikulatutako ikasleak izan dira).

AZTERLANAREN METODOLOGIA

AZTERLANA

Proiektuak honako eremu hauek barne hartzen dituen azterlan bat proposatu du:

- Populazioaren ezaugarriak aztertzea, enplegua aurkitzeko zailtasunarekin zerikusia izan dezaketen faktoreetan arreta jarrita.
- Lanpostu bat aukeratzean ikasleek dituzten lehentasunak biltzea.
- Aztertutako populazioaren harrera eta integrazioa sustatzen dituzten lantokietako jardunbide egokiak aztertzea.
- Laneratzea eragozten duten oztopoak identifikatzea, xede-kolektiboaren enplegarritasuna optimizatzen laguntzeko.

Datuak modalitate kuantitatibo eta kualitatiboen bidez biltzeko metodoak 2. taulan ageri dira.

DATUAK	BITARTEKOA	ITURBURUA
Populazioaren ezaugarriak	Datu-taularen galdetegia, aldagai esanguratsuen presentziaren arabera	LHko ikastetxeak
	Errubrikak eta hizkuntza-gaitasuneko probak	LHko ikastetxeak eta ikasleak
Ikasleen lehentasunak	Erantzun zuzeneko inkesta	Ikasleak
Enpresaren eta populazioaren arteko egokitzapen-maila	Erantzun zuzeneko inkesta eta elkarriketak	Enpresak
Kolektiboa lantokietan sartzeko jardunbide egokiak	Erantzun zuzeneko inkesta eta elkarriketak	Enpresak
	Focus group	LHko ikastetxeak eta enpresak
Enplegarritasuna eragozten duten oztopoak	Focus group	LHko ikastetxeak eta enpresak

2. taula: Datuak biltzeko bitartekoak eta iturburuak

Proiektua 2024-2025 eta 2025-2026 ikasturteetan garatu da.

03


IKASLEEN PROFILA

POPULAZIOA

Populazioak, zehaztutako laginaren arabera, ezaugarri hauek ditu aldagai soziodemografikoei eta enplegarritasun-zailtasunarekin korrelazioan dauden aldagai dagokienez.


- **Populazioa hazi egin da** Euskadin azken sei urteetan (1. irudia).
- **Bizkaian (1.867 ikasle)**, hazkundea adin-tarte guztietan gertatu da (2. irudia). Bereziki nabarmena izan da **15 urteko ikasleen gorakada** (ikasketa hauek egiteko gutxieneko adina).
- Halaber, **adinez nagusi** diren pertsonen presentziak ere **egin du gora**, eta, beraz, belaunaldien arteko aniztasuna gero eta handiagoa da geletan.

MATRIKULATUTAKO IKASLEAK IKASTURTEAREN ARABERA



1. irudia. Taula honetan HETEL Euskadiren datuak agertzen dira.


IKASLEAK ADINAREN ARABERA



2. irudia. HETEL Bizkaiko Oinarrizko Mailako ikasleak 1.867 dira guztira

- **LHko etapa honetan, gizonezkoak dira nagusi.** Izan ere, lagineko ikasleen % 14,55 baino ez dira emakumeak; hau da, 2025-2026 ikasturtean, guztira 361 emakume zeuden matrikulatuta Oinarrizko Graduetan. Hala ere, egoera nabarmen aldatzen da ikasitako espezialitatearen arabera. Ziklo jakin batzuetan (adibidez, Ile-apainketa) emakumeen presentzia % 100 ingurukoa da; beste batzuetan (hala nola Iturgintza eta beroa), berriz, % 1 baino gutxiagokoa. Oro har, emakumeak ikasle guztien % 5 baino gutxiago dira industria- eta teknologia-zikloetan (3. irudia).

EMAKUMEEN % INDUSTRIA-ZIKLOETAN



3. irudia

04

IKASLEEN LEHENTASUNAK ETA ESPEKTATIBAK

IKASLEEN LEHENTASUNAK

Lanpostu bat aukeratzeko orduan dituzten lehentasunei dagokienez, azpimarragarrienak **kokapena, soldata eta lan-baldintzak** (segurtasuna, malgutasuna, kontziliazioa, etab.) dira. Faktore horiei emandako garrantziari dagokionez, generoaren arabera desberdintasun txikiak hauteman dira. Emakumeen kasuan, lan-baldintzak dira alderdi nagusia, eta lan-giroari ere garrantzi handia ematen diote. Aldiz, gizonentzat, enpresaren kokapena da lanpostua hautatzeko irizpide nagusia (3. taula).

LEHENTASUN-KATEGORIA	GIZONAK (%) (N=758)	EMAKUMEAK (%) (N=254)	(GIZONAK - EMAKUMEAK)
Kokapena	% 62.3	% 50.4	% +11.9
Soldata	% 58.0	% 48.8	% +9.2
Lan-baldintzak	% 53.8	% 59.8	% -6.0
Lan mota	% 38.9	% 44.9	% -6.0
Lan giroa	% 37.1	% 48.0	% -10.9
Lanbide-sustapena	% 34.0	% 30.7	% +3.3
Enpresaren ospea	% 15.8	% 17.3	% -1.5

3. taula. Ikasleek lanpostu bat aukeratzeko dituzten lehentasunak.

05

ENPLEGAGARRITASUNA ERAGOZTEN DUTEN FAKTOREAK

KOLEKTIBOA, ENPLEGAGARRITASUNARI DAGOKIONEZ


Maila akademiko honetan zenbait aldagaien proportzio handiagoa dago (beste maila batzuekin alderatuta), eta horrek laneratzean eta enpleguaren kalitatean eragiten duten faktoreak identifikatzeko aukera ematen du. Aldagai horiek zenbat eta gehiago metatu pertsona berarengan, orduan eta zailagoa izango da enplegua eta kalitatezko enplegagarritasuna lortzea.

LANERATZEA ETA ENPLEGAGARRITASUNAREN KALITATEA ERAGOZTEN DUTEN IDENTIFIKATUTAKO ALDAGAIAK

- Lorpenak eta maila akademikoa.
- Ikaskuntzarekin lotutako zailtasunak.
- Eskolatzeko gabeziak.
- Atzerriartasuna.
- Gizarte- eta lanbide-ingurunearen hizkuntzaren gaitasun-maila.
- Gizarte-zaingarritasuna (pertsonala, bizitegietakoa, ekonomikoa eta familia-bizikidetzakoa).
- Baliabide digitaletarako sarbidea.

- 1. Hezkuntza-premia bereziak dituen populazioa hazten ari da** ikasgeletan (hots, ikaskuntza-prozesuak eragotz ditzaketen diagnostikoak dauzkaten pertsonak). Kasu batzuetan, profil honetara zuzendutako modalitate jakin bateko taldeak daude; hala ere, oro har, ikasgeletako profilak askotarikoak dira. Gaur egun, ikasleen % 13 inguruk hezkuntza-premia bereziak dituzte (4. irudia).

HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK




4. irudia




2. Aurretik **DBHn eskolatuta ez zeuden ikasleen** kopuruak nabarmen egin du gora. Kolektibo hau Bizkaiko HETEL elkarteko kide diren ikastetxeetako Oinarrizko Mailako ikasleen % 28 da (5. irudia).
3. Badira **Euskadiko hizkuntzetan alfabetatuta ez dauden ikasle** asko ere. Izan ere, kolektibo hori Bizkaiko Oinarrizko Mailako ikasleen % 35era hurbiltzen da (6. irudia). Horren haritik, sakon aztertu da kolektiboaren hizkuntza-gaitasuna, eta hauteman da kide gehienek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren (EEMB) A1 mailatik hurbil dauden ulermen- eta adierazpen-mailak dituztela soilik. Horrek erronka handia dakar, eta zaildu egiten du ikasgelan ikasteko gaitasuna eta ikasleen etorkizuneko enplegarritasuna.

AURRETIK DBH-N ESKOLATU GABEKO IKASLEAK




EUSKADIKO HIZKUNTZETAN ALFABETATU GABEKO IKASLEAK




4. **Gizarte-zerbitzuek artatutako pertsonen** kopuruak goranzko joerari eutsi dio, eta Oinarrizko Mailako LHko ikasleen % 22 dira jada Bizkaiko ikastetxeetan (7. irudia). Horrek esan nahi du zaugarritasuna bereziki lotuta dagoela pertsona horien alderdi sozialarekin (pertsonala, bizitegietakoa, ekonomikoa eta familia-bizikidetzakoa).
5. **Baliabide digitalik ez duten pertsonen** kopurua handitzen ari da, eta gaur egun populazio honen % 28 dira (8. irudia). Horrek esan nahi du ezin dituztela atzitu gaur egun gizarteratzeko ezinbestekoak diren zenbait baliabide.
6. **Aitortutako desgaitasun-mailari dagokionez, datuek erakusten dute eragindako pertsonen % 67k % 33tik gorako desgaitasuna dutela.** Egoera hori erronka handia da irakasleentzat eta hezkuntza taldeentzat. Alde batetik, metodologia inklusiboak garatu behar izaten dituzte ikasgeletan; bestetik, ikasleak bideratu behar dituzte gizarteratze- eta laneratze-prozesuetan, eta enpresetan praktikak bilatzen lagundu behar diete. Datu horiez gain, bada ezkutuko desgaitasun-ehuneko bat ere, informazio-bilketan gardentasun osorik ez dagoelako (prozesu hori estigmaterekin lotu ohi baita). Bestalde, zaugarritasuna eta aukerak eskuratzeko ildoak kontuan hartuko dituen diagnostiko egokirik ez izateak ere eragina du bizitzan zehar.

GIZARTE-ZERBITZUEK ARTATUTAKO IKASLEAK



BALIABIDE DIGITALIK GABEKO IKASLEAK



ENPRESAK ETA HAIEN INKLUSIO- GAITASUNA

EMPRESAK

Laneratzeko beharren eta populazioaren enplegarritasunaren kalitatearen arteko egokitzapen-mailari buruzko datuak bildu dira. Horretarako, Bizkaian jarduera ekonomikoa duten 22 lanbide-erlotako enpresen 113 erantzun jaso dira. Gehienak ETEak dira, enpresa horiek baitira populazio honen laneratzea ahalbidetzen duten lantoki gehienak. Merkataritza-sozietateak dira gehien bat, baina badaude laneratzeke enpresa batzuk, lan elkartuko erakundeak eta irabazi-asmorik gabekoak ere.

POPULAZIOAREKIKO EGOKITZAPENA ERRAZTEN DUTEN JARDUNBIDE EGOKIAK ETA POLITIKAK BALORATZEKO EREMUAK

- Ikaskuntza-premia bereziei arreta ematea.
- Hizkuntza- edo prestakuntza-zailtasunak.
- Enpresaren kokapena eta mugikortasunarekin lotutako erraztasunak.
- Lan-baldintzak.

Enpresen eta populazioaren ezaugarrien arteko batez besteko **egokitzapen-maila 6,60koa** da, gehieneko balioa 10 izanik.

Doikuntza-maila handia (> 7,5) duten 34 enpresa identifikatu dira, hau da, kolektibo honen laneratzea errazten duten jardunbide egokiak dituztenak.

Banakako elkarrizketen osagarri gisa, lau focus group ezarri dira, LHko ikastetxeen (11) eta enpresen (24) partaidetzarekin. Talde horietan, populazio honen aldeko apustua egiteko motibazio nagusiak identifikatu dira, garatutako jardunbide egokietan sakondu da eta laneratzea eragozten duten oztopoak identifikatu dira.



JARDUNBIDE EGOKIAK, OZTOPOAK ETA MOTIBAZIOAK

JARDUNBIDE EGOKIAK - IKASKUNTZA-PREMIA BEREZIEI ARRETA EMATEA

- Gainbegiratzea, giza-laguntza eta errefortzu positiboa.
- Lana zeregin sinpleetan zatitzea.
- Zereginak errepikatzea.
- Irakurketa errazteko baliabideak, piktogramak, irudiak eta komunikazioa errazten duten beste elementu batzuk erabiltzea.
- Gaitasun pertsonalak alde aurretik aztertzea eta baldintzekin egokitzea balioa emateko.
- Lana egituratzea eta lanpostuan laguntza ematea.
- Laguntzaileei (orientatzaileak edo arduradunak) arreta ematea.
- Egunkariak eta zereginak erregistratzeko dokumentuak erabiltzea.
- LH dualaren aukerak hedatzea, LHko ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzaren bidez.

JARDUNBIDE EGOKIAK - HIZKUNTZA- EDO PRESTAKUNTZA-ZAILTASUNAK

- Erreferentziazko figurak mentore izendatzea.
- Dokumentazio instrumentala egokitzea.
- Irakurketa errazeko testuak erabiltzea.
- Jarraibide argiak, hizkuntza errazarekin.
- Lankidetzaren erraza eta ohikoa LHko ikastetxearekin.
- Enpresaren laguntza administrazio-izapideak egiteko eta dokumentuak kudeatzeko.
- Lan-ingurunean hizkuntza ofizialen erabilera bultzatzen duten lantaldeak sustatzea.
- Gizarte-arloko erakundeekin lankidetzan aritzea, hizkuntza-gaitasuna lortze aldera.
- Kolektibo hau kontzientziatzea hizkuntza ofiziala(k) behar bezala menderatzeko beharraz.



JARDUNBIDE EGOKIAK

JARDUNBIDE EGOKIAK

- ENPRESAREN KOKAPENA ETA MUGIKORTASUNAREKIN LOTUTAKO ERRAZTASUNAK

- Tokiko edo hurbileko kontratazioari lehentasuna ematea.
- Ordutegia garraio publikoko zerbitzuetara egokitzea.
- Taxien kostuak enpresaren gain hartzea azken lan-txandetan, garraio publiko orokorra erabiltzea eragozten baitute.
- Partekatutako garraioa sustatzea.
- Etxetik lantokira joateko erabili behar den garraioa finantzatzea.
- Hurbileko ETEen arteko lankidetza, mugikortasun partekatuko konponbideak errazteko.

JARDUNBIDE EGOKIAK

- LAN-BALDINTZAK

- Prestakuntza dual intentsiboaren aldeko apustu sendoa.
- Azterketa medikoak egitea.
- Enpresak berariaz sustatutako prestakuntza osagarriak.
- Hazkunde profesionalerako eta aurrerapen indibidualerako prestakuntza kudeatzea.
- Ordutegi-malgutasuna.
- Lan-baldintzei buruzko argitasuna hasieratik (ordutegia, kategoria, funtzioak, ordainsaria, etab.).
- Argitasuna enpresaren egiturari buruz eta aurrerapen eta garapen profesionalerako aukerei buruz.
- Lantaldean lan-giro ona eta leialtasuna sustatzeak duen eragin positiboa aitortzea.
- Lan-baldintzak ezaugarri eta egoera pertsonalen arabera egokitzea.

GIZARTERATZEA

ERAGOZTEN DUTEN OZTOPOAK

- Aurreiritziak eta estereotipoak.
- Lan-kostuak.
- Sentsibilizaziorik eza eta batzuetan pertsona kalteberengan inbertitzen ez duen enpresa-kultura.
- Enpresen eta administrazio publikoen arteko elkarriketarik eta lankidetza zuzenik eza.
- LHn eskumena duten administrazioek ereduaren aldaketei buruzko informazio nahikorik ez ematea.
- Araudiak eta araututako lanbideek eskatzen duten laneko segurtasunari buruzko aurretiazko prestakuntzaren inguruko gabeziak.
- Ikasleak lantokira joateko garraioa ez finantzatzea, LH dualeko ikasketak egin bitartean.
- Lan-inguruneak eta ekipamenduak populazio berezietarako eraldatzeko eta egokitzeko laguntza publikorik eza.
- Arau-esparrua malgutasun gutxiarekin hautematea.

POPULAZIO HONEN ALDEKO APUSTUA EGITEKO MOTIBAZIO NAGUSIAK

- Premia estrukturala eta konbikzio soziala.
- Funtsezko bidea da belaunaldi-erleboaren arazoari aurre egiteko.
- Gero eta profesional gutxiago daude arlo teknikoan.
- Talentu espezializatua lortzeko harrobia.
- Potentziala, konpromisoa eta ikasteko gogoia duten pertsonengan inbertitzea.
- Pertsonen denbora eskaintzea epe ertain eta luzerako inbertsioa da, enpresari onura baliotsuak ekartzen dizkiona.

GIZARTERATZEA MOTIBAZIO



ONDORIOAK ETA BALIO-MEZUAK

ONDORIOAK

- Badira maila akademiko txikia duten, lan-esperientziarik ez duten eta gizarteratzeko edo laneratzeko zailtasun ugariak dituzten gazte batzuk. Kolektibo horrek LHko ikastetxeek, enpresek eta administrazio publikoek ekintza koordinatuak abiaraz ditzaten behar du.
- Laneratzea eta enplegarritasunaren kalitatea oztopatzen duten aldagai hauek nabarmenagoak dira Oinarrizko Mailako LHko ikasleen artean:
 - Lorpenak eta maila akademikoa.
 - Ikaskuntzarekin lotutako zailtasunak.
 - Eskolatze-gabeziak.
 - Atzeritartasuna.
 - Gizarte- eta lanbide-ingurune ko hizkuntzaren gaitasun-maila.
 - Gizarte-zaugarritasuna (pertsonala, bizitegietakoa, ekonomikoa eta familia-bizikidetzakoa).
 - Baliabide digitaletarako sarbidea.
- Laneratzeari dagokionez, populazio honen lehentasunek kokapenarekin, soldatarekin eta lan-baldintzekin dute zerikusia, eta generoaren arabera zenbait alde daude.
- Kolektibo honen laneratzea errazten duten jardunbide egokien eta jarduketan zerranda bat egin da.
- Laneratzea zailtzen duten eta askotariko eragileei (pertsonak eta gizartea oro har, baita administrazio publikoak, enpresak eta LHko ikastetxeak ere) dagozkien hainbat oztopo aipatu dira.

- Pertsona hauen alde egiteko arrazoi esanguratsuak aurkitu dira, ekosistema produktibo eta sozialari balioa eta talentua ematen baitizkiote.

BALIO-MEZUAK

- Enplegarritasun-zailtasunak dituen populazioaren inklusioa posible da horretarako estrategia antolatu bat eta metodo bat daudenean.
- Ahalegin horien funtsezko elementuetako bat zereginak egokitzea da, mugak benetako lan-aukera bihurtzeko.
- Laneratzeko prozesuan, funtsezkoa da lantokiko orientatzailea edo mentorea.
- Mugikortasuna egiturazko baldintza bat da laneratze-prozesuan.
- Inklusioak sentikortasuna, antolaketa-kultura eta baliabideak eskatzen ditu.
- Kualifikazio txikiko lanpostuetan, pertsonaren jarrera ikaskuntzaren gainetik baloratzen da, azken hori gutxietsi gabe.
- Inklusioak pazientzia eta jarraitasuna eskatzen ditu.
- Belaunaldien arteko erreleboak gazteen aldeko berehalako apustua eskatzen du, eta ez du atzerapenik onartzen.
- Hainbat sektoretako enpresen esperientziak erakusten duenez, Oinarrizko mailako LHko ikasleen inklusioa bideragarria, positiboa eta estrategikoki onuragarria da. Laguntza, arrazoizko egokitze-ahalegina eta konfiantza eskaintzen zaizkienean, pertsonak konpromisoa, egonkortasuna eta hazkunde profesionala erakutsita erantzuten dute, eta horrek balioa ematen die gizarteari eta enpresei.